



LANPOSTU DEIALDIA

FEMINISMOETAN HEZKUNTZA (GEH) TEKNIKARIA Gasteizen

EGINKIZUNAK

- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuak formulatzea, gauzatzea eta ebaluatzea, erakundearen Plan Estrategikoaren arabera (gaiak: indarkeria matxistak; egia, justizia eta erreparazio eskubidea; feminismoak “antikeskubideen” aurrean...).
- Hezkuntza-prozesuak gauzatzea: formakuntza-prozesuak, jardunaldiak, tailerrak, mintegiak eta abar antolatzea eta ematea. Komunikazio-kanpainak, dibulgazio-materialak eta abar diseinatzea. Eragin politikoa egitea erakunde publikoetan, komunikabideetan eta hainbat espaziotan.
- Ekologismo sozialarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin eta justizia sozialarekin lotutako sare eta plataformetan parte hartzea
- Feminismoen Hezkuntza Taldean parte hartzea, baita erakundearen beste gune batzuetan ere.

BALDINTZAK

Prestakuntza akademikoa

- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako prestakuntza edota Giza Eskubideekin edo Nazioarteko Lankidetzarekin lotutako ikasketak.
- Feminismoekin, emakumeen eskubideekin eta genero-disidentziekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza.
- Euskara jakitea.

Maila teknikoa

- Hezkuntza-proiektuak egiten, gauzatzen eta justifikatzen esperientzia izatea.
- Prestakuntzak, tailerrak, jardunaldiak eta abar ematen esperientzia izatea.

Bestelakoak

- Harremanetarako, elkarrizketarako eta talde-lanerako gaitasuna.
- Koordinazio bileretara eta jardueretara Arabara eta Gipuzkoara joateko prestasuna
- Bidaiatzeko prestasuna

BALORATUKO DA

- Antzinasuna eta erakundean duen inplikazioa: bereziki baloratzen da
- Arabako Gizarte-mugimenduetan edota Gobernu Kanpoko Erakundeetan parte hartzea eta errealitatea ezagutzea
- Lan propioa antolatze eta erabakiak hartzeko gaitasuna
- Komunikazio-trebetasunak

ESKAINTZEN DIREN BALDINTZAK

- Ordezkapen-kontratua baja bat dela eta, gutxienez 4 hilabeterako
- Lanaldi osoko kontratua.
- Lanpostua Gasteizko bulegoan
- Soldata, Mugarik Gaberen ordainsariaren arabera.

CURRICULUMAK AURKEZTEA

- 2025eko abuztuaren 17ra arte jasoko dira CVak bilbao@mugarikgabe.org helbidean, "Feminismoetan Hezkuntza teknikari lanpostua" izenarekin.
- Elkarrizketak eta probak beharrezkoak balira abuztuaren 25eko asteen
- Hasiera irailaren 1ean